

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Elhuyar ikaslearen hiztegia

Batzuen artean

ELHUYAR FUNDAZIOA

1044 orrialde +
CD-ROM
26 euro

Ikaslearen Hiztegia guztiz eguneratua

1997an izan zuen *Elhuyar ikaslearen hiztegia*-k aurreneko edizioa. 2001ean izan zuen bigarrena, eta aurtengo abuztuan kaleratu du hirugarrena, CD-ROM eta guzti. Edizio berri bakoitzak, hasierakoaren izen bera izan arren, baditu aurrekoarekin aldeak, batik bat edukietan ikasleen beharretara egokitzeko. Plazartu berriak 4.000 hiztegi-unitate gehiago ditu, 7.000 adiera inguru gehiago, 900 gramatika-ohar, bakoitza bere adibidearekin, eta 518 hiztegi-unitate irudiz edo gramatika-taulaz hornituak. Horiez gain, hiztegiaren amaieran, aditz eta deklinabide-taulak

jasotzen dituen eranskina eta munduko estatuen izenak, hiriburuenak eta herritarrei nola izendatzen zaien jasotzen dituen eranskina ere baditu. |



Antzinako euskal matematikaz zenbait burutazio

Batzuen artean

GAIK


280 orrialde / 22 euro

Euskal matematikaren eta ilargiaren egutegiaren ikerketak

Fernando Bustillok, Roslyn M. Frankek eta Alfontso Mtz. Lizardukoak osatutako liburua da *Antzinako euskal matematikaz zenbait burutazio*. Aritmetikaren hastapenak izan daitezkeelakoan, Cro-Magnongo gizakiek animalien hezurretan utzitako markak aztertu dituzte, baita Aurignacaldiko eta Goi Paleolitoko aztarnategietan aurkitutako beste kalkulu tresna batzuk ere. Atzetik, Josu Naberanek euskaldunen ilargiaren egutegiaren inguruan egindako azterketen ondorioak azaldu dituzte: euskaldunok garatutako kontatzeko oinarritzko sistema hogeitarra eta hemengo errotariak zeukaten sistema. Azkenik, Patziku Perurenak zenbakien euskal sinbologia azaldu du. |

Artea eta merkatua oholtzan

Iazko Donostia Hiria literatur lehiaketan gaztelaniako antzerki saria irabazi zuen Francisco Romerok (Torralba de Calatrava, Espainia, 1961) *Shylock Gallerie* lanarekin. Hiru pertsonaiaren gainean eraturako antzezlan da: ilusio eta goranahi izugarritz osatutako artelana galeriarik ospetsuenaren bidez aupatu nahi duen margolari gaztea; galeria horren jabe eta sustatzaile buruargia; eta hark erabili ohi duen arte kritikaria, inguratzen zaizkion artistetatik interesgarrien lanak oihartzuna izan dezaten lan egiten duena. Urte asko daramatza kritika-riak galeria jabearekin, baina minduta dago, berak asko maite zuen margolari gazte baten heriotzaren erruduntzat jotzen duelako. Eta emakumearen maltzurkeriari aurre egiten ahaleginduko da. |

Shylock Gallerie
Francisco Romero

KUTXA FUNDAZIOA

72 orrialde
8,01 euro

III. Onomastika Jardunaldiak

1990eko irailaren 26, 27 eta 28an, Lizarran, Fray Diego de Estellaren familiaren etxean egin ziren III. Onomastika Jardunaldiak. Han aurkeztutako hitzaldi eta txostenen laburpenak jaso dituzte Euskaltzaindiak, Nafarroako Gobernuak eta Lizarrako Udalak *Onomasticon Vasconiae 7*-n. Bildutako lanen artean, hauexek aipa genitzake: Fernando González Olléren *Relaciones lingüísticas vasco-románicas. A propósito de la etimología de Estella*; José María Jimeno Jurioren *Toponimia rural y urbana de Estella*; Luis M. Mujika Urdangarinen *Allin ibarreko euskal toponimia (Mendebaleko euskararen aztarrenak Lizarrerrian)*; Fermín de Leizaola Calvoren *Aportación a la toponimia de las sierras de Andía, Urbasa y Entzia*; eta José M. Satrustegiren *El euskera en Tierra Estella. Evolución histórica*. |



Onomasticon Vasconiae 7

Batzuen artean

EUSKALTZAINDIA
586 orrialde



Hegats
Batzen artean
EUSKAL IDAZLEEN
ELKARTEA
174 orrialde

Cesare Pavese-ren ehungarren urteurrenean

1908ko irailaren 9an sortu zen Cesare Pavese idazle italiarra. Ehun urte igaro direnez, Torino bihotzean zuen idazlearen bizitza eta lana gogoratzeko une ona dela pentsatu dute Euskal Idazleen Elkarteak plazaratutako *Hegats* aldizkarikoek. Irakurle asko izan ditu eta dauzka Cesare Pavese, eta ez dira gutxi haren lanak euskaratu dituzten euskal idazleak, Mikel Etxebeste, Xabier Mendiguren Bereziartu eta Joseba Sarrionandia, tartean. *Hegats*-en hari buruz mintzo direnak honakoak dira: Jose Angel Irigarai –idazlearen bizitza eta heriotza oroitzu–; Xabier Lete –Pavese-ren suizidioaren gaineko gogoeta eginez– eta Mikel Unanua –idazle italiarraren poesiari–.


Altuera jauzia egitea lortu zuen elefantearen gorabeherak

Kostata bada ere, edozein kirol proba gainditzeko irrika omen dute animaliek. Hori dio etxeko gaztetxoentzat Ibaizabalek kaleratutako *Listoia gainditu* istorioak behintzat. Elefantea dabilkigu komeriatan. Izan ere, animaliek altuera jauzia lehiaketa dute, eta listoia ginetik jauzi egiteko gogoa piztu zaio elefanteari. Makila baten laguntzaz erraz egin dezakeela esaten dio kangu-ruak. Baina elefantea lodiegia da, eta makila hautsi egin zaio. Hala ere, zartakoz zartako, azkenean jauzi egitea lortuko du.

Listoia gainditu

Victoria Pérez Escrivá

IBAIZABAL
38 orrialde / 6,88 euro



KARLOS ZABALA

«Espainian faxismoa gelditzeko aukera egon zitekeela uste zuen»

Zein ziren Malrauxen usteak Espainiara borrokatzera joateko?

Malrauxek ikusia zuen nola Hitlerrek Europako alderdi komunistarik boteretsuena deuseztu zuen, nola nazi austriarrek estatu kolpea egin eta boterea eskuratu zuten, eta nola italiarrek Etiopia inbaditu zuten. Espainian, faxismoa gelditzeko aukera egon zitekeen. Eta faxismoaren kontra borrokatzera joan zen Madriler.

Inor harritu al zuen haren jarrerak?

Ez asko. Malraux oso idazle ezaguna zen orduko, baina faxismoaren kontra agertutako konpromiso politikoarengatik ere guztiz ezaguna zen. Madriler iristean zein lan eman zion Errepublikako presidentek Malrauxi?

Espainiako gobernuak atzerrian hegazkinak erosteko beharra zeukan. Ez zegoen hegazkin modernorik lortzerik ez Frantzia ez inon gobernuetara eskatuta. Malrauxek Espainiako gobernuaren diruarekin ahal ziren eta hegazkin gehienak erosi eta eskifaiak kontratatu behar zituen. Hori egin ondoren, Malraux berak zuzendu zuen 1936ko abuztutik 1937ko otsailera arte –suntsitu zuten arte– borrokan jardun zuen *España* eskudrila txikia. 130bat lagunek osatu zuten: gehienak frantsesak, sei italiar, hiru belgikar, portugaldar bat, bi jugoslaviar, aljeriar bat, errusiar bat, txekiar bat, indonesiar bat eta euskaldun bat ere izan zen, Barca mekanikaria, itzultzaile lana ere egiten zuena, eskudrilako gehienek gaztelaniaz lau hitz baino ez zekitelako.



egileari galdezka

André Malraux 1936ko Espainiako gerraz

André Malraux (1901-1976) Indotxinan ibili zen joan den mendeko hogeigarren hamarkadan, eta garai hartan oinarritutako gertaerekin bi nobela idatzi zituen: *Les conquérants* (1928) eta Goncourt saria irabaztera eramango zuen *La condition humaine* (1933). Borrokalari antifaxista sutsua zenez, Franco eta haren militar faxistak Espainiako Errepublikaren aurka matxinatu zirela jakin orduko erabaki zuen indar errepublikarren alde borrokatzera joatea. Eta 1937ko otsailera arte borrokan jardun zuen berak antolatutako hegazkin eskudrilak, harik eta bertan parte hartu zuten lagun onenak hil edo zauritu eta hegazkinak suntsituta zeudenean, borroka utzi eta AEBetara eta Kanadara joan zen arte, Espainiako Errepublikaren laguntza

eskatzera. Bidaia horietan sortu omen zen Karlos Zabalak euskaratu duen *Esperantz*a liburua-aren ernamuina, faxismoa geldiaraztea posible zela aldarrikatzen zuen lana. *Esperantz*a 1936ko uztailaren 18-19ko gauean hasten da, militar faxistei aurre egiteko asmoz langileria armatzen hasi zenean, eta 1937ko martxoaren 20an amaitzen, 70. brigada mistoak faxisten alde ari ziren italiarrei irabazi zieten Guadalajaran. ■



Esperantz
André Malraux
ALBERDANIA, ELKAR
632 orrialde
23 euro